

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko abenduaren 31tik 2023ko urtarrilaren 06rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2023/01/04

- **EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA. LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bilboko Portuko Zamalanetako Enpresenzarmen Hitzarmen Kolektiboaren 2023ko laneko egutegia erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48100015012014). **III-310 xedapena - 2 or.**

2023/01/05

- **EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA. LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko EraikuntzarennHitzarmen Kolektiboaren 2023ko laneko egutegia erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (48000715011981 hitzarmen kodea). **III-319 xedapena - 2 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/12/31

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Kirola.** 39/2022 Legea, abenduaren 30ekoa, Kirolari buruzkoa. **24430 xedapena - 92 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA. Osasun-neurriak.** Ebazpena, 2022ko abenduaren 30ekoa, Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiarena, Txinako Herri Errepublikatik datozen bidaiariak Espainiara sartzen diren tokietan egin beharreko osasun-kontrolei buruzkoa. **24432 xedapena - 4 or.**

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** Ebazpena, 2022ko abenduaren 27koa, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko Zuzendaritza Nagusiarena, honako hauek zehazten dituena: Gizarte Segurantzako sistemaren zein prestazio ebatzi ahal izango diren modu automatizatuan; zer banaketa-irizpide erabiliko diren prozedura jakin batzuen antolaketa eta instrukzioa probintzia-zuzendaritzei esleitzeko; eta zein probintzia-zuzendaritza izango den pentsioak aitortzeko eskudun Gizarte Segurantzako nazioarteko tresna bat aplikatu behar denean. **24433 xedapena - 6 or.**
- **BALORE MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALA. Balore-merkatua.** 4/2022 Zirkularra, abenduaren 22koa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena, Espainiako balore-merkatuko azpiegituren kontabilitate arauai, urteko kontuei eta tarteko finantza-egoerei buruzkoa. **24434 xedapena - 41 or.**

2023/01/03

- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Antolaketa.** Abenduaren 29ko TED/1351/2022 Agindua, Iruzuraren aurkako Neurrien Unitatea sortu eta arautzen duena Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioan, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (Next Generation, EB) kontura finantzatutako proiektuetarako. **A-2023-56 xedapena - 5 or.**

2023/01/04

- **BARNE-MINISTERIOA. Mugak.** 2023ko urtarrilaren 3ko Ebazpena, Estatuko Segurtasun Idazkaritzarena, Txinan COVID-19ak eragindako osasun-egoera dela-eta osasun publikoagatik aireko kanpoko mugetan murrizketak egiteari buruzkoa. **A-2023-121 xedapena - 2 or.**

2023/01/05

- **BARNE-MINISTERIOA. Gidabaimenak.** INT/1353/2022 Agindua, abenduaren 29koa, zeinaren bidez zehazten baita Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiko zer eskola eta erakundek duten ahalmena haren eta indar armatuen ibilgailuak gidatzeko baimenak emateko eta salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak gidatzeko baimen berezia emateko. **A-2023-158 xedapena - 3 or.**

- **GARRAIOKO, MUGIKORTASUNEKO ETA HIRI-AGENDA KO MINISTERIOA. Aireontziak.** TMA/1354/2022 Agindua, abenduaren 16koa, zeinak aldatzen baitu FOM/1687/2015 Agindua, uztailaren 30ekoa, aireontzi zibilen nazionalitate- eta matrikula-markei buruzko xedapen osagarriak ezartzen dituen. **A-2023-159 xedapena - 4 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantzak. Aldi baterako ezintasuna.** 1060/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zeinak aldatzen baitu 625/2014 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, aldi baterako ezintasunagatiko prozesuen kudeaketaren eta kontrolaren zenbait alderdi arautzen dituen lehenengo hirurehun eta hirurogeita bost egunetarako. **A-2023-160 xedapena - 6 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantzak. Kontabilitatea.** Ebazpena, 2022ko abenduaren 29koa, Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Nagusiarena, Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoen okerreko ordainketak itzultzeari buruzko kontabilitate-jarraibideak ematen dituen. **A-2023-161 xedapena - 6 or.**

2023/01/06

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK. Enplegu publikoa.** 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa. **A-2023-353 xedapena - 138 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2023/01/04

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2022 Foru Dekretua, abenduaren 27koa. Onespena ematea Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuaren aldaketari. **03713E xedapena- 2 or.**
- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA).** 623/2022 Foru Agindua, abenduaren 28koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren bulegoak irekitzeko ordutegia eta horiek ixteko egunak 2023rako. **03707E xedapena- 2 or.**

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 29ko 778/2022 Foru Agindua, 2023an helbideratutako zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen egutegia eta zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen likidazioko hamabosterik behingo egutegia ezartzen dituen. **03728E xedapena- 11 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO